

¿ZER DIRA ITSAS ZABORRAK?

Gizakiak sortutako hondakin solidoak dira, hainbat arrazoi tarteko itsasoko edo itsasertzeko inguruneetan utzita agertzen direnak.

BA AL ZENEKIEN HAU...

Itsas zaborrak arazo globala bihurtu dira, klima-aldaketa, ozeanoen azidotzea eta biodibertsitate-galera bezain larria den arazoa.

10 milioi zabor tona iristen dira urtero itsaso eta ozeanoetara, gehien bat plastiko-hondakinak.



Milioi bat itsas hegaztiak gora eta 100.000 itsas ugaztun eta dortoka baino gehiago hiltzen dira urtero itsas zaborretan kateatuta geratzeagatik edo haiek jateagatik.

Itsas zaborren % 80 lehorrean sortutakoak dira.

Utzitako hondakinak haizeak eta euriak eramaten ditu, barrualdean itsasotik kilometro askora bizi bazara ere. Oso litekeena da komunetik behera botatzen duguna itsasoraino iritsi, eta itsas zabor bihurtzea.

Itsas zaborren % 20 itsas jarduerak eragiten dituzte, hala nola arrantzak eta itsas garraioak.



Irtenbide nagusia ez da garbitzea soilik; aldiz, hori gertatzea saihestu behar da.

Denok ordaintzen ditugu hondartza eta ozeanoak garbitzeak sortzen dituen gastuak, eta baliabide horiek ezingo dira beste premia batzuetara bideratu.

PARTE-HARTZAILEAK



CONAMA 2016ko Itsas Zaborren Lantaldeak egin du dekalogo.



Edita:
© Ministerio de Agricultura y Pesca,
Alimentación y Medio Ambiente
Secretaría General Técnica

Centro de Publicaciones
Catálogo de Publicaciones de la Administración
General del Estado:
<http://publicacionesoficiales.boe.es/>
NIPO: 013-17-006-1

Itsas Zaborren Kontrako Hiritar Dekalogo



Zu naturaren zati zara.

Lehorrean zure urratsak soilik utzi, eta itsasoa zure uhara.

¿ZER EGIN DEZAKEZU?

1.

Pentsatu modu globalean

Egin hausnarketa eta hartu zuri dagokizun erantzunkizuna.

Gure portaera funtsezkoa da itsas zaborren arazoa saihesteko.



2.

Bota produktu higienikoak paper-ontzira, inoiz ez komunera.

Kotoi-zotz, paper-zapi, konpresa eta antzekoek kalteak eta matxurak eragiten dituzte saneamenduan, eta itsasoraino irits daitezke. Ondorioz, ingurumen-arazo larriak sortzen dituzte, baita arrantzaleen sareak buxatu ere.




3.

Arrantzan aritzea gustatzen bazaizu, kontuz ibili aparailuekin. Itsasora erortzen bazaizkizu, litekeena da itsas animaliak soka eta harien artean kateatuta geratzea edo amuak irenstea.



4.

Egizu kontsumo arduratsua: informa zaitzez eta, ondoren, erabaki.



5.

Hiru arau hauetan oinarritu **zure kontsumo ohiturak -murriztu, berrerabili eta birziklatu-** Hori eginda, itsas zaborrak gutxitzen lagunduko duzu, horiek askotan zure etxean sortzen baitira.



6.

Goza ezazu naturaz modu arduratsuan. Ez bota ez zigarrokinik, ez bilgarririk, ezta bestelako hondakinik ere, hondartzan, ibaietan, eta itsasoan. Eduki beti prest haiek botatzeko tokiren bat.



7.

Egizu bat hiritar-zientziarekin.

Prebenitzeko, ezagutza funtsezkoa da, eta denok zabal dezakegu itsas zaborrei buruzko jakintza modu errazean.

Hiritar zientzialaria izatea itsas zaborren kopurua, motak eta haiek zer gunetan pilatzen diren hobeto jakiteko laguntza ematea da. Informa zaitzez Itsas Zaborren Espainiako Elkartearen bitartez.

www.aebam.org



8.

Itsasertzean paseatzen ari zarela hondakinak topatzen badituzu, bildu egin ditzakezu.

Era berean, bat egin dezakezu tokiko **garbiketa-kanpainekin.**



9.

Haur eta gazteen heziketan naturarekiko errespetua sustatzea funtsezkoa da, eta zure portaeraren bidez, eragin zure lagun eta kideengan, **hondakinik ez botatzeko.**



10.

Nabigatzen duzunean, ez bota hondakinik uretara.

Bildu itzazu eta lehorreratzean bota itzazu dagokion tokira.

